

Sexualitate anitzei arreta emanez ikastaroaren balorazioa

Gazteen Euskal Behatokiaren 2014ko Prestakuntza Planaren bigarren ikastaroa egin da Donostian

Sexualitate anitzei arreta emanez ikastaroa egin da Donostian, 2014ko otsailaren 13, 20 eta 27an. Eragile sozializatzailerik gazteen sexualitateei arreta ematen jarraitzea da ikastaroaren helburu nagusia. Arreta hori lantzetik hasi behar da, identitate sexuarean, desioaren orientazioan edo ahalmenetan dauden aniztasunak aintzat hartuta eta horien onarpena sustatuta.

Ikastaroa **Emaize Sexologia Zentroko** sexologoek eman dute.

16 lagunek partehartu dute ikastaroan, honako lanbide-profilak dituztenak:

- Gehienak, % 63, gazteen arloko langileak (gazte informazioa, udalak, aldundiak, gazteen elkarteak, gizartean eta hezkuntzan esku hartzen duten taldeak eta beste erakunde batzuk) izan dira.
- Beste % 19 hezkuntza arautuari lotutako lagunak izan dira.
- Bestetik, % 13 gazteriaz aparteko beste eremu batzuetan (inmigrazioa, generoa, sexualitatea, drogomenpekotasunak, etab.) lan egiten dute.
- Azkenik, % 5 beste lanbide-profila dituzten lagunak izan dira.

Ikastaroak 15 orduko iraupena izan du, bosna orduko hiru saiotan banatua.

Ikastaroko ikasleen batez besteko balorazioak honako hauek izan dira (Otik 10era bitarteko eskalan):

